
TOXOPLASMOSIA

Katuak eta haurdunak: elkarrekin bizi daitezke?



Haurdun egoteak ez du esan nahi katuari agur esan behar zaionik. Toxoplasmosia nola transmititzen den jakitea eta higiene-neurri erraz batzuk hartzea funtsezkoa da arriskua murrizteko. Artikulu honetan zalantza nagusiak argitu eta elkarrekin segurtasunez bizitzeko aholkuak bildu ditugu.

Haurdunaldia iristen denean, etxean katu bat duten familia askori galdera bera sortzen zaie: arriskutsua al da katuarekin bizitzen jarraitzea? Toxoplasmosiari buruzko beldurra katuak abandonatzeko arrazoietako bat izan da urteetan. Informazio faltak eta gaixotasunaren inguruan zabaldutako ideia okerrek familia batzuk beharrezkoak ez diren neurriak hartzera eraman dituzte. Izan ere, toxoplasmosia arriskutsua izan daiteke haurdunaldian lehen aldiz hartzen bada, baina horrek ez du esan nahi etxean katu bat izatea arriskutsua denik.



Prebentzio-neurri erraz batzuk hartuta, haurdunaldia eta katuarekiko bizikidetza guztiz bateragarriak dira.

1. Zer da toxoplasmosia?

Toxoplasmosia *Toxoplasma gondii* izeneko protozoo batek eragindako infekzioa da. Parasito hori animalia askoren zelulen barruan bizi daiteke, baita gizakien eta katuen barruan ere. Katu gehienek ez dute gaixotasunaren sintomarik izaten.

Kutsatzen direnean, askotan gazteak direnean gertatzen da, ehizatzen hasten direnean edo kutsatutako animalien haragi gordina jaten dutenean, adibidez, saguak edo hegaztiak. Kutsatutako beste katu batzuen gorotzetan dauden oozisto infekziosoak irentsita ere kutsa daitezke.



Katu batek infekzioa hartzen duenean, parasitoaren oozistoak gorotzen bidez kanporatu ditzake denbora-tarte mugatu batean. Baina hemen dago ulertu beharreko datu garrantzitsu bat: oozisto horiek ez dira berehala infekziosoak. Horretarako, normalean, egun batetik bost egunera behar dute. Horregatik, katuaren hondar-kutxa egunero garbitzea prebentzio-neurri oso eraginkorra da.

2. Katua al da kutsatzeko arrisku nagusia?

Ez. Eta hori da toxoplasmosiari buruz argitu beharreko ideia nagusietako bat. Pertsonengan infekzioa hartzeko bide arruntagoak dira haragi gordina edo gutxi egina jatea eta behar bezala garbitu gabeko barazkiak kontsumitzea, eta ez katu bat ukitzea edo harekin etxe berean bizitzea.

Datua

Oñatin erregistratutako katuak

Guztira: 279 katu

- Emeak: 133 · % 47,7
- Arrak: 125 · % 44,8
- Sexua zehaztu gabe: 21 · % 7,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza, REGIA / Open Data Euskadi. Kontsulta: 2026ko irailaren 28a.
Oharra: datuek erregistratutako katuak jasotzen dituzte; ez dute Oñatiko katu guztien kopurua adierazten.

Beraz, katua laztantzeak, harekin jolasteak edo etxe berean bizitzeak ez du berez toxoplasmosia transmititzen. Arriskua kutsatutako materiala ahora iristen denean sortzen da.



Horregatik dira hain garrantzitsuak elikagaien higienea eta katuaren hondar-kutxa garbitzean hartu beharreko neurriak.

3. Zergatik izan daiteke arriskutsua haurdunaldian?

Pertsona askok toxoplasmosia izan dute beren bizitzako uneren batean konturatu ere egin gabe. Arazo nagusia emakume batek infekzioa haurdunaldian lehen aldiz hartzen duenean sor daiteke.

Kasu horretan, parasitoak fetuari eragin diezaioke eta, egoeraren arabera, ondorio larriak sor ditzake. Horregatik, haurdunaldian medikuak egoki irizten dituen kontrolak egitea eta prebentzio-neurriak betetzea garrantzitsua da.
Baina horrek ez du esan nahi katua etxetik atera behar denik.



Berdin garrantzitsua da azpimarratzea emakumeak haurdunaldiaren aurretik toxoplasmosia igaro badu (odol-analisi bateko IgG immunoglobulinen bidez egiazta daitekeena), babes-inunitatea duela jada. Kasu horretan, parasitoa fetuari transmititzeko arriskua izugarri gutxitzen da.

4. Katua baduzu, zer egin?

Lehenengo gomendioa oso erraza da: ez larritu.

Haurdunaldian arreta berezia jarri behar zaio katuaren hondar-kutxari. Ahal bada, beste pertsona batek garbitzea komeni da. Zuk egin behar baduzu, erabili eskularruak, garbitu kutxa egunero eta garbitu eskuak ondo amaitutakoan.
Katua etxe barruan edukitzea ere komeni da, ehizatzeko aukerarik izan ez dezan eta kutsatutako beste katu edo animaliekin kontaktua murrizteko. Eta ez eman haragi gordinik; katuentzako prestatutako elikagaiak aukera seguruagoa dira.

Ez ahaztu, gainera, zure elikadurarekin ere neurriak hartu behar dituzula: garbitu fruta eta barazkiak ondo, eta ez jan haragi gordina edo behar bezala egin gabea.

Iturriak: CDC: toxoplasmosiari eta haren prebentzioari buruzko informazioa; Cornell Unibertsitateko Feline Health Center: katuen toxoplasmosiari buruzko informazioa; Eusko Jaurlaritza, REGIA / Open Data Euskadi: Oñatin erregistratutako katuen datuak.
Kontsulta-data: 2026ko irailaren 28a.

Ezinbesteko bost arauak

Oro har, haurdunaldian katuarekin segurtasunez bizitzeko:

1. Ez eman katuari haragi gordinik.
2. Ahal bada, ez garbitu zuk hondar-kutxa haurdunaldian; egin behar baduzu, erabili eskularruak.
3. Garbitu hondar-kutxa egunero, eta ondoren garbitu eskuak ondo urarekin eta xaboiarekin.
4. Garbitu ondo fruta eta barazkiak eta saihestu haragi gordina edo gutxi egina.
5. Ez abandonatu zure katua haurdun zaudelako. Informazioa eta prebentzioa dira babesik onena.

Toxoplasmosia serio hartu behar da haurdunaldian, baina katua ez da etsaia. Higiene-neurri erraz batzuekin eta medikuaren gomendioei jarraituz, katuarekin bizitzen jarrai dezakezu eta familiako kide izaten jarrai dezake, haurra iritsi aurretik eta ondoren.

